

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Ibilgailuen errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzea**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko errolda egin denez gero, jendaurrean jarriko da 15 egunez. Halaber, iragarki honen bidez, erroldaren barruko likidazioak taldeka jakinarazten dira, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen.

Zerga norberaren borondatez ordaintzeko araututako epea 2020ko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoa (biak barne) izango da, eta martxoaren azken egunean kobratuko dira helbideraturiko ordainagiriak.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekarguarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2020ko otsailaren 12a

*Alkate-lehendakaria*  
**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**